



1/2021, de 12 de enero

ERABAKIA

Diputatu Nagusiaren Saila
Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzua
Espediente zk.: 4/2021

Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendariaren bateragarritasunari buruzko adierazpena.

Foru ordenamendu juridikoak inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatzeko eskatzen die kudeatzaile publikoei karguan diharduten administrazioan gobernu eta zuzendaritza funtzioak betetzean, helburua baita beste interes edo jarduera batzuek ez dezatela ez funtzio horiek betetzea oztopatu, ez baldintzatu, eta ondorioz, kudeatzaileen objektibotasuna, independentzia eta inpartzialtasuna arriskuan jarri. Eskatzen die, halaber, jarduteko gardentasunez, legezketasunez eta interes publiko eta pribatuen arteko gatazkarik sortu gabe. Kargu publikoaren eginkizunen inpartzialtasuna, independentzia eta betekizun horiek zorrotz betetzen direla babestea nahikoa arrazoi dira bateragarritasuna ukatzeko, baldin eta horiek guztiak kaltetzeko arriskurik txikiena badago.

Egun indarrean dagoen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoen jarduna arautzen duenak, batasunik ez zuten eta zenbaitetan osatugabeak ziren arauen fasea gainditu zuen, eta erraztu egin zuen foru kargu publikoei aplikagarri zaien erregimenaren ulermena, eta tresna bakarrean integratu zituen honako hauei buruzko xedapenak: estatutu pertsonala, jokabide kodea, foru kargu publikoen bateraezintasun erregimena, interes-gatazka egoerak.

Bateraezintasunari dagokionez, arau orokorra ezarri zuen: kargudunek arduraldi eskusiboan edukitzea, arauan bertan bateragarritzat jotzen diren jarduera publiko eta pribatu batzuk bakarrik salbuetsita. Horrela, foru kargu publikodunek ezin dute jaso ordainsari bat

ACUERDO

Departamento de Diputado General
Servicio de Secretaría General
Nº expte: 4/2021

Declaración de compatibilidad de la Directora de Igualdad y Derechos Humanos.

El ordenamiento jurídico foral exige a los gestores públicos una actuación imparcial y objetiva en el ejercicio de sus funciones de gobierno y de dirección de la administración en la que desempeñan su cargo para garantizar que otros intereses no interfieran ni mediaten el ejercicio de tales funciones comprometiendo su objetividad, independencia e imparcialidad, y que su ejercicio se realice con las máximas condiciones de transparencia, legalidad y ausencia de conflictos entre los intereses públicos y privados. La salvaguarda de la imparcialidad, independencia y cumplimiento estricto de los deberes del cargo público son motivos suficientes para la denegación de la compatibilidad si existe un mínimo peligro de menoscabo.

La actual Norma Foral 10/2018, de 11 de julio, reguladora del ejercicio del cargo público foral, superó una fase normativa dispersa y, en ocasiones, incompleta, simplificando la comprensión del régimen aplicable a los cargos públicos forales e integrando en un único instrumento las disposiciones relativas al estatuto personal, al código de conducta, al régimen de incompatibilidades de los cargos públicos forales, y a las situaciones de conflicto de interés

En materia de incompatibilidades se establece la dedicación exclusiva como regla general que sólo cederá ante determinadas actividades públicas y privadas que son declaradas por la propia norma como compatibles. Se establece que el cargo público foral no podrá recibir más de una





baino gehiago administrazio publikoen edo haien mendeko edo haiei lotutako erakundeen aurrekontuen kontura. Halaber, ezin dute jaso jarduera pribatuen ondoriozko ordainsaririk ere, foru arau horretan ezartzen diren salbuespenetan izan ezik. Horrez gainera, arauak mugak finkatu zituen sozietateen partaidetzak edukitzeko eta kargua utzitakoan jarduera ekonomiko pribatuetan aritzeko, eta ondare ondasunak eta eskubideak aitortu beharra ezarri zuen. Muga horien eta betebeharren helburua egiteko publikoetan aritzen diren foru kargu publikoen objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzea da.

Baldin eta kargu publikoen betebeharrak eta eginkizunak zorrozki betetzea eragozten ez badute edo haiei kalterik egiten ez badiete, eta interes publikoa kaltetzen ez badute, honako hauek bateragarritzat jotzen ditu aipatutako arauak: norberaren edo familiaren ondarea kudeatzea –sozietateen partizipazioei ezarritako mugak kontuan hartuta–; alderdi politikoetan jardutea edo karguak izatea; ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko edo teknikoak merkaturatu eta argitaratzea –baldin eta lan harremanen edo zerbitzuak egiteko kontratu baten ondoriozkoak ez badira–, eta ordainsaririk jaso gabe parte hartzea irabazteko asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan.

Jarduera publikoak gauzatzeari dagokionez, baldin eta trukean inolako ordainsaririk jasotzen ez bada –agindutako ordezkari-tza lanak eragiten dituen gastuen kalteordainak izan ezik–, bateragarritzat jotzen dira beste erakunde kargu batzuetan aritzea –edota diputatu nagusiak edo gobernu kontseiluak berariaz eskuduntza ematen duenetan–, erakunde publikoetan aldi baterako misioak edo ordezkari-tza lanak egitea, eta Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoaren ordezkari-tza lanak edo parte hartzea kide anitzeko organoetan, zuzendaritza organoetan edo gobernu organoetan.

Bestalde, foru kargu publikoen eta herritarrak ordezkatzeko beste kargu publiko batzuen arteko bateragarritasuna hauteskundeei buruzko

retribución con cargo a los presupuestos de las administraciones públicas o entidades vinculadas a ellas, ni ninguna otra que provenga de la actividad privada salvo las excepciones previstas expresamente. Se fijan limitaciones a las participaciones societarias y al ejercicio de actividades económicas privadas tras el cese, y se establece la obligación de presentar declaración de actividades y de bienes y derechos patrimoniales para su registro, todo ello para garantizar la objetividad e imparcialidad en el desarrollo de las funciones públicas de los cargos públicos forales.

Ahora bien, siempre que no impida ni menoscabe el estricto cumplimiento de los deberes y obligaciones del cargo público, ni perjudique el interés público, se declaran como compatibles la administración del patrimonio personal o familiar -con las limitaciones previstas para las participaciones en sociedades-; el ejercicio de actividades y cargos en partidos políticos; la comercialización y publicación de producciones y creaciones literarias, artísticas, científicas o técnicas, siempre que no traigan causa en una relación de trabajo o de prestación de servicios; y también la participación en fundaciones, asociaciones o entidades sin ánimo de lucro siempre que no se reciba retribución alguna.

En cuanto al desarrollo de actividades públicas y siempre que no implique la percepción de retribución alguna, salvo las dietas e indemnización por los gastos en que se hubiera incurrido, se declaran como compatibles el desempeño de otros cargos que institucionalmente le correspondan, o, el de aquéllos para los que resulte expresamente comisionado por el diputado o diputada general o por el consejo de gobierno; el cumplimiento de misiones temporales o de funciones de representación en organizaciones de naturaleza pública; y, también la representación y participación del sector público del Territorio Histórico de Álava en órganos colegiados, de dirección o de gobierno

Por otro lado, la compatibilidad con el desempeño de cargos públicos de representación popular viene determinada por las respectivas



legeetan dago finkatuta: foru karguek jardueretako baten ordainsaria bakarrik jaso ahal izango dute eta, diputatu nagusia ez beste guztiak, toki erakundeetako hautetsiak eta alkateak izan daitezke, toki erakundeak, indarreko legeriarekin bat etorritik, arduraldi eskusiboa edo lanaldi partzial finkoa izatea eskatzen duenean izan ezik.

Horrez gain, araudiak ezartzen du foru kargu publikoetan jardutea irakaskuntzarekin bateragarria dela, baldin eta ez badira urtean 60 ordu baino gehiago ematen. Bestalde, ezartzen du foru kargu publikoek ezin dutela parte hartu enpresa, sozietate eta erakundeen interesak ukitzen dituzten gaitan, ez gai horien inguruko erabakietan ere, baldin eta zerbitzu harremanak hasi aurreko bi urteetan karguduna edo bere ezkontidea –edo izatezko bikotea edo bigarren gradura arteko odol edo ezkontza ahaideren bat edo kargudunarekin interes partekatutak dauzkan hirugarren pertsonaren bat– enpresa, sozietate edo erakunde horren zuzendaritza edo gobernu organoetan aritu bada. Halaber, arauak ondare mugak ezartzen ditu sozietateen partaidetzetan, baldin eta edozein motatako itun edo kontraturen bat badute, azpikontratatistak badira, edo foru sektore publikoko erakunderen baten diru laguntza jasotzen badute. Amaitzeko, kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan jarduera jakin batzuetan aritzeko debekua ere ezartzen du arauak, eta beste hainbat bateraezintasun eta debeku ere.

Hortaz, Arabako Foru Aldundiko sailen titularren bateragarritasunari buruzko ebazpena emateko, 10/2018 Foru Arauaren 28.2. artikulua babesean, jardun aitortpena kontuan izateaz gain, ondasun eta interesen aitortpena ere hartu behar da aintzat, horretatik ondorioztatu baitaitezke balizko bateraezintasunak eta bateraezintasuna eragin dezaketen kautelazko arrazoiak edo abstenitu eta inhibitzeko beharra eragiten duten kausak.

Ainhoa Campo Arenaza andreak aurkeztutako aitortpeni atxikiz, ez du adierazi ordainsari edo pertzepziorik jasotzen duenik ez administrazio publikoen edo haien menpeko erakundeen aurrekontuen kontura, ez zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik.

leyes electorales, sin que en ningún caso el cargo foral pueda recibir más de la retribución correspondiente a una de las actividades, declarándose expresamente compatible, a excepción del diputado o diputada general, la condición de miembro electo de las entidades locales y de alcalde o alcaldesa salvo que se exija una dedicación exclusiva o fija a tiempo parcial según la legislación.

Además, se contempla la compatibilidad del cargo público foral con la docencia cuando no sea superior a 60 horas anuales; y dispone, entre otros, el deber de inhibición y abstención en asuntos en cuyo despacho hubieran intervenido o que interesen a empresas, sociedades o entidades en cuyos órganos de dirección o de gobierno hayan intervenido en los dos años anteriores al inicio de su relación, tanto ellos como su cónyuge o pareja de hecho o sus familiares dentro del segundo grado de consanguinidad o afinidad o terceras personas con las que tengan intereses compartidos; establece también limitaciones patrimoniales en participaciones societarias en cuanto tengan contratos y conciertos, sean subcontratistas, reciban subvenciones provenientes del sector público respectivo; y prohibiciones para el desarrollo de determinadas actividades durante el plazo de dos años posteriores al cese, etc.

Por lo tanto, para el dictado de la correspondiente resolución sobre la compatibilidad de las personas titulares de los Departamentos de la Diputación Foral de Álava, al amparo del artículo 28.2 de la Norma Foral 10/2018, ha de tenerse en cuenta no sólo la declaración de actividades sino también la de bienes e intereses, pues de ésta se pueden derivar supuestos y aspectos sobre eventuales y cautelares supuestos de incompatibilidad o causas de abstención e inhibición.

A la vista de las declaraciones presentadas por la señora Ainhoa Campo Arenaza, no percibe remuneraciones o percepciones, con cargo a los presupuestos de las administraciones públicas o entes dependientes de ellas, ni cualquier otra remuneración o percepción que directa o



Adierazpena egin duen agintariak, bat ere ez dago ondare mugen eraginpean sozietateen partaidetzetan, edonolako kontratuak edo itunak izan foru sektore publikoarekin, edo enpresa horien azpikontratatuak izan, edo foru sektore publikotik etorritako dirulaguntzak jaso.

Horregatik, egindako aitortpeni eta Idazkaritza Orokorreko zerbitzuburuak proposatutako aldeko txostenari atxikiz, diputatu nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko saioan aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Bakarra.- Adieraztea Ainhoa Campo Arenaza Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendari karguan jarduteko bateragarritasuna duela.

Vitoria-Gasteiz.

indirectamente provenga de una actividad privada.

Tampoco está afecta a las limitaciones patrimoniales en participaciones societarias que tengan conciertos o contratos de cualquier naturaleza con el sector público foral, o sean subcontratistas de dichas empresas, o reciban subvenciones provenientes del sector público foral.

En su virtud, vista las declaraciones efectuadas y de la propuesta de informe favorable efectuada por la Jefa del Servicio de Secretaría General, a propuesta del Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Gobierno Foral en Sesión celebrada en el día de hoy

ACUERDO

Único.- Declarar la compatibilidad de Ainhoa Campo Arenaza para desempeñar el cargo de Directora de Igualdad y Derechos Humanos.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia
Diputado General